



Andrés Prieto Arana Fondoa



Identifikazioa

Erreferentzia-kodea	ES20600AME_FAP
Izenburua	Andres Prieto Arana Fondoa
Data	1938 / 2009
Deskribapen-maila	01 - Fondoa
Bolumena	1 ml

Testuingurua

Ekoizlea

Andres Prieto Arana

Aipamen biografikoa

Andres Prieto Arana Eibarren jaio zen, 1918. urtean. Borrokalari sozialista bat izan zen, eta oso gaztetatik sozialisten gazte-erakundean sartu zen. 1934. urteko urriko mugimendu iraultzailearen ondorioz, Iruñeko kartzelan egon zen preso. Fronte Popularraren garaipenaren ondoren, Eibarko epaitegiko ofizial administrari izendatu zuten. Frontean ibili zen, Irungo, Tolosako eta Lasarteko operazio militarretan. Gernikako bonbardaketatik salbatu zen, baina itsasontzian ihes egiteko zorian zegoenean tropa frankistek harrapatu zuten. Pontevedran, Santoñan eta Teruelen egon zen preso. 1938. urtean heriotza-zigorra ezarri zioten, baina zigorra aldatu zioten, eta, ondoren, Frantziara ihes egitea lortu zuen beste zazpi presorekin. Erbestean, Espainiako Batasun Nazionalako kide izan zen, eta frantses erresistentziarentzat egin zuen lan, "gerrillari espainiarren 105 brigada" sortuta. Gerra amaitu zenean, Parisera joan zen, eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izan zen lanean Jose Antonio Agirre eta Jesus Maria Leizaola lehendakariarentzat; euskal iheslariei



sarrera errazteko lanean jardun zuen. II. Mundu Gerran, Pointe de Grave bataila gogorrean parte hartu zuen. Borroka horretan, aliatuak izan ziren garaile, 1945eko apirilean. 1979an, erbestetik bueltatu zen, Leizaola lehendakariarekin. 2010. urteko martxoaren 4an hil zen, Valentzian.

Artxiboaren historia

Dokumentazioa Andres Prietoren artxibo pribatukoa da, eta Prietok frantses erresistentziako kide gisa izandako zereginari buruzkoa da.

Sartzeko era

Dokumentazio gehiena Andres Prietok berak entregatu zuen, 2009. urtean, eta 2012an beste entrega bat egin zuen familiak, Andres Prieto hil zenean.

Edukia eta egitura

Edukia

Fondoari dagokion dokumentazioa, bereziki, Bigarren Mundu Gerrako frantses erresistentziaren garaiko Boluntario Atzerritarren Batailoiaren eta Gernika Euskal Batailoiaren antolaketari dagokio; korrespondentzia pribatua, prensa-ebakinak eta argazkiak.

Baloratzea, aukeratzea eta ezabatzea

Ez.

Sarrera berriak

Ez.

Antolaketa

Dokumentazioaren inbentarioa eginda dago.

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzak

Sartzeko baldintzak

Izaera publikoa duen agiri-fondoa. Edozeinen eskura dago, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/90 Legeak jartzen dituen mugekin. Dokumentazioaren zati bati Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta udalak berak onetsia duen segurtasun-agiria aplikatu behar zaizkio.

Erreproduzitzeko baldintzak

Dokumentuen erreprodukzioa librea da, aipatutako legediak dioen neurrian.

Dokumentuetako hizkuntza / idazketa

Frantsesa/gaztelania/euskara.



Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak

Paperezko dokumentazioa.

Deskripziorako tresnak

Inbentarioa.

Gehitutako dokumentazioa

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokapena

Eibarko udaletxea.

Kopien existentzia eta kokapena

Udal Artxiboa. Fondo digitala.

Lotura duten deskripzio aleak

Eibarko ahozko agiria. En boca de eibarreses: Zb: AB-207, AB-467, AB-850, AB-864

Deskripzioaren kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón-ek egin du deskripzioa, iturri-dokumental zuzenetan eta Eibarko Udal Artxiboan (Andres Prieto Fonda) oinarrituta.

Arauak

ISAD(G) arauan partzialki oinarritutako deskripzioa, Udal Artxiboak garatutako jarraibide espezifikoen arabera.

Deskripzioaren eguna

2012-12-14